

2. erreminta. ELKARBIZITZA IKASTETXEAN: GIZA ESKUBIDEEI BEGIRA.

IRAKASLEAK

Aurreko jardueran bezala, fitxa bete bakarka (dago(z)kiona X batez markatu erdiko zutabeen, eta hori islatzen duen egoera edo ekintza bat adierazi)

Emakumea

Gizona

GIZA ESKUBIDEAK IKASTETXEAN	Errespetatzen da	IKUSTEN DA ONDOKO EGOERA EDO EKINTZATAN
<p>1. Pertsona guztiak askeak eta berdinak gara ikastetxean. 1. artikulua. Gizon-emakume guztiak libre jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberekin, eta, arrazoimenez eta kontzientziaz jantzirik daudenez gero, elkarrekin senide moduan jokatu behar dute.</p>	BAI	
	EZ	
<p>2. Pertsona guztiok aske bizi eta seguru sentitzen gara ikastetxean. Ikastetxean ez dugu tratu txarrik jasaten. 3. artikulua. Pertsona orok du bizitzeko, libre izateko eta segurtasunerako eskubidea. 5. artikulua. Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazterik eman ere.</p>	BAI	
	EZ	
<p>3. Ez bagaituzte errespetatzen, laguntza eska dezakegu, badakigu nola eta nori eskatu ikastetxean. 8. artikulua. Pertsona orok du bere herriko auzitegi eskudunei errekurtso eraginkorra aurkezteko eskubidea, Konstituzioak edo legeek aitortzen dizkieten oinarrizko eskubideak urratzen dituzten ekintzetatik babesteko.</p>	BAI	
	EZ	
<p>4. Gure intimitatea, nire intimitatea, errespetatzen da ikastetxean. 12. artikulua. Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatua, familia, etxean edo postan eskusartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere. Normahik du eskusartze edo eraso horien aurka legezko babesa izateko eskubidea.</p>	SÍ	
	EZ	

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko Gida (UBP)

<p>5. Nire gauzak lasai izan ditzaket ikastetxean, inork kendu edo hondatu gabe.</p> <p>17. artikulua. 1. Pertsona orok du jabe izateko eskubidea, bakarka nahiz taldeka. 2. Inori ez zaio arrazoirik gabe bere jabetza kenduko”.</p>	BAI	
	EZ	
<p>6. Nire sinismen propioak eta nire gustuko erlijioa izan ditzaket ikastetxean.</p> <p>18. artikulua Pertsona orok du pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunerako eskubidea. Eskubide horrek bere baitan biltzen du erlijioz edo sinestez aldatzeko askatasuna, baita ere bakarka nahiz taldeka, jendaurrean nahiz pribatuan nor bere erlijioa edo sinestea azaltzeko askatasuna, irakatsiz, praktikatuz, gurtuz edo arauak betez.</p>	BAI	
	EZ	
<p>7. Pentsatzen duguna esan dezakegu ikastetxean.</p> <p>19. artikulua. Gizaki orok du iritzi- eta adierazpen-askatasunerako eskubidea. Horrek bere barnean biltzen du norberaren iritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, informazioa eta iritziak ikertu eta jasotzekoa, eta horiek mugarik gabe eta edozein adierazpidez zabaltzekoa.</p>	BAI	
	EZ	
<p>8. Ikastetxeko erabaki eta kudeaketa organoetan parte hartzen dugu.</p> <p>21. artikulua. 1. Pertsona orok du bere herriko gobernuan parte hartzeko eskubidea, zuzenean edo askatasun osoz aukeratutako ordezkarien bidez. 2. Pertsona orok du berdintasunez bere herriko funtzio publikoan sartzeko eskubidea. 3. Herriaren borondatea da agintaritza publikoaren agintearen oinarri; borondate hori aldizka egingo diren benerako hauteskundeetan adieraziko da. Hauteskundeotako bozketak orokorrak eta berdintasunezkoak izango dira, eta isileko botoz edo boto-askatasuna bermatzen duen beste bide batez egingo dira.</p>	BAI	
	EZ	
<p>9. Ikastetxean guztiok izaten dugu bazterkeriarik gabeko hezkuntza, sexu, genero, giza jatorri, etnia, aukera sexuala... direla-eta sorturiko diskriminazioa gaindituz.</p> <p>26. artikulua.1. Pertsona orok du hezkuntza-eskubide (...) denek izango dute goi-mailako ikasketak egiteko aukera bera, norberaren merezimenduen arabera. 2. Hezkuntzaren helburua giza nortasuna guztiz garatzea izango da eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzea; herrialde, arraza eta erlijio guztien arteko elkar-ulertze, jasankortasun eta adiskidetasunaren alde egingo du (...). 3. Gurasoen lehentasunezko eskubidea izango dute seme-alabei emango zaizen hezkuntza mota aukeratzeko.</p>	BAI	
	EZ	
<p>10. Ikastetxeko kultur bizitzan parte hartzen dugu eta gure ekarpenak baloratu eta errespetatzen dira.</p> <p>27. artikulua 1. Pertsona orok du eskubidea elkarteko kultur ekitaldietan aske parte hartzeko, artelanez gozatzeko, eta zientzi aurrerakuntzan eta horri darizkion irabazietan parte hartzeko. 2. Zientzia, literatura edo arte mailan egindako lanen egile diren pertsona guztiek dute horregatik eskubidea dagozkien interesak eta materialak babes dakizkien eskubidea.</p>	BAI	
	EZ	

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko Gida (UBP)

11. Gure eskubideen muga gure betebeharretan dago, gurekiko eta eskola komunitatearekiko. 29. artikulua 1. Pertsona orok ditu komunitatearekiko betebeharrak, komunitatea baita bere nortasuna libre eta erabat garatzeko toki bakarra. 2. Pertsona orok, bere eskubideak erabiltzean eta horiek askatasunez gozatzean, legeak ezarritako mugak baino ez ditu izango, bai gainontzeko herritarren eskubide-askatasunak errespetatuko direla ziurtatzeko, bai gizarte demokratiko batean moralaren, ordena publikoaren eta guztien ongizatearen bidezko eskakizunak betetzeko ere. (...)	BAI	
	EZ	

Norberaren oharrak:

.....

.....

.....

Norberaren ondorioak:

.....

.....

.....